





JOAKIN
LIZARRAGA
IKASTETXE PUBLIKOA

"Sentituz, bizi eta hezi"

SARRIGURENen kantuz





AURKIBIDEA

1. AITA SEMEAK, OSKORRI	3
2. MARITXU NORA ZOAZ, HERRIKOIA	3
3. TXORIAK TXORI, MIKEL LABOA	4
4. XALBADORREN HERIOTZEAN, XABIER LETE	4
5. IXIL-IXILIK DAGO, HERRIKOIA	5
6. OI AMA EUSKAL HERRI, BENITO LERTXUNDI	6
7. GUK EUSKARAZ, URKO	6
8. EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ, OSKORRI	7
9. AITORREN HIZKUNTZA ZAHARRA, HERRIKOIA	8
10. HAURRAK IKAS ZAZUE, HERRIKOIA	8
11. EGUN DA SANTIMAMIÑA, MIKEL LABOA	9
12. BAGARE, HERRIKOIA	10
13. IKUSI MENDIZALEAK, HERRIKOIA, OSKORRI	10
14. MAITETXU, HERRIKOIA	11
15. MAITEAK GALDEGIN ZAUTAN, ERRAMUN MARTIKORENA	11
16. NESKA ZAHARRAK, HERRIKOIA	12
17. LORIAK UDAN BILINTX, BENITO LERTXUNDI	13
18. MENDIAN GORA IMANOL, XABIER AMURIZA	14
19. KONTRAPAS, XABIER LETE	15
20. ALDAPEKO, HERRIKOIA	16
21. RIAU- RIAU, MIGUEL ASTRAIN	17
22. LORETXOA, BENITO LERTXUNDI	18
23. ITURINGO AROTZA, MIKEL LABOA	18
24. PELLO JOXEPE, HERRIKOIA	19
25. ABERRIAREN MUGAK, TXOMIN ARTOLA	20
26. GREZIAKO ITSASONTZIA, PANTXOA ETA PEIO	21
27. BOGA-BOGA, JESUS GURIDI	21
28. "SARRIGUREN ABESTIA"	22
29. EUSKALDUNAK GARA, PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOX	22
30. EUSKERA OI EUSKERA, HERRIKOIA	23
31. EPERRAK, HERRIKOIA	23
32. NAFARROAKO KATEAK, FERMIN BALENTZIA	24
33. FURRA FURRA, OSKORRI	25
34. ZIRKORRIKA	26
35. EUSKARAREN TXANTXANGORRIA	27
36. BEHIN BATEAN LOIOLAN, BILINTX EGAN	28
37. SARRI SARRI, KORTATU	29
38. LAU TEILATU, ITOITZ	30
39. IRULEGIKO ESKU	31
40. SARRI, SARRI, BERDETZO!	32



1. AITA SEMEAK, OSKORRI

AITA SEMEAK TABERNAN DAUDE
AMA-ALABAK JOKOAN
AITA SEMEAK TABERNAN DAUDE
AMA-ALABAK JOKOAN.

BERRIZ IKUSI BEHARKO DUGU
BEHI GIZENA AUZOAN,
BERRIRO ERE EZ DA FALTAKO
TRAPU ZAHARRIK KAKOAN.

AITA SEMEAK...

ETA LAPURREK OHOSTU DUTE
GUK GENDUKANA ETXEAN,
ETA GU GAUDE ERDI BILUZIK
BETI INOREN MENPEAN.

AITA SEMEAK...

2. MARITXU NORA ZOAZ, HERRIKOIA

MARITXU NORA ZOAZ
EDER GALANT HORI? (G)

ITURRIRA BARTOLO
NAHI BADEZU ETORRI (E)

ITURRIAN ZER DAGO? (G)

ARDOTXO TXURIA (E)

BIOK EDANGO DEGU
NAHI DEGUN GUZTIA. (DENOK)

TRARALALA...



3. TXORIAK TXORI, MIKEL LABOA

HEGOAK EBAKI BANIZKIO
NERIA IZANGO ZEN,
EZ ZUEN ALDEGINGO (BERRIZ).

BAINAN, HONELA
EZ ZEN GEHIAGO TXORIA IZANGO
(BERRIZ),
ETA NIK...
TXORIA NUEN MAITE (BERRIZ).

4. XALBADORREN HERIOTZEAN, XABIER LETE

ADISKIDE BAT BAZEN
OROTAN BIHOZBERA
POESIAREN HEGOEK,
SENTIMENDUZKO BERTSOEK
ANTZALDATZEN ZUTENA.

PLAZETAKO KANTARI
BAKARDADEZ JOSIA
HITZEN LIHOA IRUTEN,
BERE BARNEAN IRAUTEN
OINAZEZ IKASIA... IKASIA

NUN HAGO, ZER LARRETAN
UREPELEKO ARTZAINA
MENDI HEGALETAN GORA
OROITZAPENEN GERORA
IHESETAN JOAN HINTZANA. (BERRIZ)

HESIA URRATURIK
LIBRATU HUEN KANTA
LOTURA GUZTJETATIK,
GORPUTZAREN MUGETATIK
ASKE SENTITU NAHIRIK.

AZKEN HATSA HUELA
BERTSORIK SAKONENA
INOIZ ESAN EZIN DIREN
ESTALITAKO EGIEN
OIHURIK BORTITZENA... BORTITZENA

NUN HAGO....



5. IXIL-IXILIK DAGO, HERRIKOIA

IXIL IXILIK DAGO, KAIA BARRENIAN
ONTZI XURI POLIT BAT URAREN GAINEAN. (2 ALDIZ)

GOIZEKO ORDU BIETAN ESNATUTZEN GERA
ARRANTZALIAREKIN JOATEKO URRUTIRA.(2 ALDIZ)

PASATZEN NINTZANEAN ZURE LEIHOPETIK
NEGARRA IRTETEN ZAIT BEGI BIETATIK.(2 ALDIZ)

ZERGAITIK (5 ALDIZ) NEGAR EGIN?
ZERUAN IZARRA DAGO, ITSASO ALDETIK. (2 ALDIZ)

BAT, BAT, BAT, BART PARRANDAN IBILI, BART PARRANDAN IBILI.
BI, BI, BI, EZ NAIZ ONDO IBILI, EZ NAIZ ONDO IBILI.
HIRU, HIRU, HIRU, KOLKOA BETE DIRU, KOLKOA BETE DIRU.
LAU, LAU, LAU, SARDINA BAKALAU.

ANTERON TXAPARROTIA, APAIZAREN BIBOTIA,
HARETXEK EZ DAUKA, (EZ DAUKA)
FRESKO TXIPIROIA. (3 ALDIZ)

HAU DEK, HAU DEK, HAU DEK UMORIA,
KONTSOLATZEKO, KONTSOLATZEKO, EUSKALDUN JENDIA.

KALIAN GORA, KALIAN BEHERA, KALIAN GORA ZEZEKA, AI, AI, AI,
KALIAN GORA, KALIAN BEHERA, KALIAN GORA ZEZEKA.
KALIAN GORA, KALIAN BEHERA, (3ALDIZ) KALIAN GORA ZEZEKA. (BERRIZ)



6. OI AMA EUSKAL HERRI, BENITO

LERTXUNDI

ANAI ETXEN DA EZKÜNTÜ
BÜKATÜ NIZ OAIN JOAITERA
ENE OPILAREN EGITERA
PARISERAT BANÜAZÜ

OI AMA ESKUAL HERRI GOXUA
ZUTANDIK URRUN TRISTE BANÜA
ADIOS GAIXO ETXEN DENA
ADIOS XIBERUA. (BERRIZ)

PARISEKO BIZITZIA
LAN KOSTÜZÜRIAZ BAGIAZÜ
BENA BERANTZEN ZÜTADAZÜ
ZURE BERRIZ IKUSTIA.

OI AMA ESKUAL HERRI...

7. GUK EUSKARAZ, URKO

GUK EUSKARAZ
ZUK, ZERGATIK EZ?

EUSKARA PUTZU SAKON
ETA ILUN BAT ZEN, (BERRIZ)
ETA ZUEK DENOK
UR GAZI BAT
ATERA ZENUTEN
HANDIK NEKEZ. (BERRIZ)

GUK EUSKARAZ
ZUK, ZERGATIK EZ?

ORAIN ZUEN BIRTUTEZ
ZUEN INDARREZ (BERRIZ)
EUSKARA ITSASO URDIN ETA ZABAL
BAT IZANEN DA
ETA GURIA DA. (BERRIZ)



8. EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ, OSKORRI

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
NAHI DUGU HITZ ETA JOLAS
LAN ETA BIZI EUSKARAZ ETA
HORTARA GOAZ,
BADA GARAIA NOIZBAIT DEZAGUN GUDA HORI GAL EDO IRABAZ.
ZABAL BIDEAK ETA AIREAK
GURE HIZKUNTZAK HAR DEZAN ARNAS,
BADA GARAIA NOIZBAIT DEZAGUN GUDA HORI GAL EDO IRABAZ.

EUSKAL HERRIAN EUSKARA
HITZ EGITERIK EZ BADA
BOTA DEZAGUN DEMOKRAZIA ZERRI ASKARA
GEURE ARIMA HILTZEN UZTEKO BEZAIN ODOLGALDUAK EZ GARA.
HIZKUNTZA GABE ESAIDAZUE
NOLA IRTENGO NAIZEN PLAZARA,
GEURE ARIMA HILTZEN UZTEKO BEZAIN ODOLGALDUAK EZ GARA.

EUSKAL HERRI EUSKALDUNA
IRABAZTEKO EGUNA
PAZIENTZIA ERRE AURRETIK
BEHAR DUGUNA,
EZ AL DAKIZU EUSKARA DELA EUSKALDUN EGITEN GAITUENA?
ZER EUSKAL HERRI LITZAKE BERE
HIZKUNTZA ERE GALTZEN DUENA.
EZ AL DAKIZU EUSKARA DELA EUSKALDUN EGITEN GAITUENA?



9. AITORREN HIZKUNTZA ZAHARRA, HERRIKOIA

AITORREN HIZKUNTZA ZAHARRA
NAHI DEGU ZABALDU
MUNDUAREN AURREAN
GIZONKI AZALDU,
BALDIN GURE ZAINETAN
ODOLIK BADEGU
__EUSKALDUNAK EUSKARAZ
HITZ EGIN BEHAR DEGU. (BERRIZ)

ZEIN HIZKUNTZA EDERRA
EUSKERA GURIA
INUN EZ DET AURKITZEN
BESTE BAT HOBIA
USAI GOXONDUN HIZKUNTZA
TXUKUN TA ARGIA,
__BIRAORIKAN EZ DUAN
HIZKETA GARBIA. (BERRIZ)

GORA EUSKARA MAITEA
ZORAGARRIENA
EUSKALDUNEN ARTEAN
MAITAGARRIENA.
MUNDUAN SORTU ZANIK
HIZKUNTZIK ZAHARRENA,
__GORA TA GORA EUSKALDUNAK
ETA GURE EUSKARA.(BERRIZ)

10. HAURRAK IKAS ZAZUE, HERRIKOIA

HAURRAK IKAS ZAZUE
EUSKARAZ MINTZATZEN,
ONGI PILOTAN ETA
ONESKI DANTZATZEN. (2 ALDIZ) .
AIRE TUN..

GURE KANTU ZAHARRAK
KONTSERBA DITZAGUN,
AIRE POLITAGORIK
EZ DA SORTU INUN.(2 ALDIZ)
AI-RE TUN ...

EZ AHANTZ BERRIZ ERE
SORTERRI EDERRA,
HAREN MENDIAK ETA
ITSASO BAZTERRA.(2 ALDIZ)
AI-RE TUN ...

BIHOTZ LEIALA ERE
ATXIK AITAMERI
ETA NONBAIT DAGOEN
GAZTE MAITEARI. (2 ALDIZ)
AI-RE TUN...



11. EGUN DA SANTIMAMIÑA, MIKEL LABOA

EGUN DA SANTIMAMIÑA

BENETAN EGUN SAMIÑA

GOIKO ZERUAN GORDE DEZALA LUZARO NEURE ARIMA.(2 ALDIZ)

ESATEN DIZUT EGIA HAU EZ DA USATEGIA

ERROI ARTEAN IZAN NINTZADEN BENETAN AUSARTEGIA.

EGUN DA SANTIMAMIÑA...

ITSAS ALDEAN IZARRA HARI BEGIRA LIZARRA

EUSKARA SALBO IKUSI ARTE EZ DUT KENDUKO BIZARRA.

EGUN DA SANTIMAMIÑA...

KANTATU ZUEN OILARRAK, ARGITZEN DIRA BELARRAK

AGEDA GURE MARTIRIARI MOZTU ZIZKATEN BULARRAK.

EGUN DA SANTIMAMIÑA...

BULARRAK MOZTU ZIZKATEN ETA EUSKALERRIAK DIOTSA

SOLOMU LUZE DULTZERIK GABE EMAN ZAIDAZU BIHOTZA.

EGUN DA SANTIMAMIÑA...

EMAN ZAIDAZU BIHOTZA ETA KEN BERRIZ NAHIGABEAK

ESAN NOIZ GAREN IZANEN GURE ETORKIZUNEN JABEAK.

EGUN DA SANTIMAMIÑA...



12. BAGARE, HERRIKOIA

ARABAN BAGARE
GIPUZKUN BAGERA
XIBERUN BAGIRE
TA BIZKAIAK BAGARA. (BERRIZ)
BAITA ERE, LAPURDI TA NAFARRAN.

GUZTIOK GARA EUSKALDUN
GUZTIOK ANAIK GARA
NAHIZ ETA HITZ EZBERDINEZ
BAT BERA DUGU HIZKERA. (BERRIZ)

ARABAN BAGARE
GIPUZKUN BAGERA
XIBERUN BAGIRE
TA BIZKAIAK BAGARA. (BERRIZ)
BAITA ERE, LAPURDI TA NAFARRAN.

HERRI BAT DUGU OSATZEN
ETA GURE ZABARKERIZ
EZ DAIGUN UTZI HONDATZEN.
___BAGARE, BAGERA,
BAGIRE, BAGARA
EUSKARA ASKATZEKO
ORAINTXE DUGU AUKERA. (BERRIZ)

13. IKUSI MENDIZALEAK, HERRIKOIA, OSKORRI

IKUSI MENDIZALEAK
BASO ETA ZELAIK,
MENDI TONTOR GAINERA
IGO BEHAR DUGU.

EZ NEKEAK, EZTA BIDE TXARRAK
GORA, GORA EUSKALERRIA.
GU EUSKALDUNAK GARA
EUSKALERRIKOAK. (BERRIZ)

HEMEN MENDI TONTORREAN
EUSKAL LURREN ARTEAN
BEGIAK ZABALDURIK
BIHOTZA ERRETA.

HAIN EDERRA, HAIN POLITA DA TA,
GORA, GORA EUSKALERRIA.
GU EUSKALDUNAK GARA
EUSKAL HERRIKOAK. (BERRIZ)



14. MAITETXU, HERRIKOIA

MAITETXU ITSASOAN DAGO
ITSASONTZI BATEAN,
MAITETXU ITSASOAN DAGO
URRUTIRAKO BIDEAN (BERRIZ).

*MAITE, MAITE,
EZ NERI UTZI HEMEN KAIEAN,
MAITE, MAITE,
ZU NERE BIHOTZEAN.*

MAITETXU NOIZ ETORRIKO DA,
NERE BIHOTZA ZAIN DAGO,
MAITETXU NOIZ ETORRIKO DA,
BIOK ELKAR BIZITZEKO (BERRIZ).

15. MAITEAK GALDEGIN ZAUTAN, ERRAMUN MARTIKORENA

MAITIAK GALDEGIN ZAUTAN,
POLIT NINTZANEZ (BERRIZ)
POLIT, POLIT NINTZELA BAINA,
LARRUA BELTZ, LARRUA BELTZ!

MAITIAK GALDEGIN ZAUTAN
PREMU NINTZANEZ (BERRIZ)
PREMU, PREMU NINTZELA BAINA,
ETXERIK EZ, ETXERIK EZ!

MAITIAK GALDEGIN ZAUTAN
POLTSA BANUENEZ (BERRIZ)
POLTSA, POLTSA BANUELA BAINA,
DIRURIK EZ, DIRURIK EZ!

MAITIAK GALDEGIN ZAUTAN
LANA BANUENEZ (BERRIZ)
LANA, LANA BANUELA BAINA,
GOGORIK EZ, GOGORIK EZ!

GAIXOA, HIL BEHAR DUGU,
GUK BIOK GOSEZ (BERRIZ)
GOSEZ, GOSEZ HIL BEHAR BAINA,
ELKAR MAITEZ, ELKAR MAITEZ.



16. NESKA ZAHARRAK, HERRIKOIA

1. UDA BERRIA DATORRENIAN
MUTIL GAZTEAK ALAITU
_HAINBAT NESKATXA DABILTZANEAN
MUTIL ZAHARREN ATZEAN, (BERRIZ)

LA, LA, RA, LA...

2. UDAZKENIAN ELKARTU ETA
BETI LOTURIK IBILI
_ASKATASUNA ASPALDI GALDUTA
BERE MENDEAN EGONIK. (BERRIZ)

LA, LA, RA, LA...

3. NEGU GORRIAREN HOTZAKIN
BAZTERRIK BILA EZINKA,
_TXIKITO LAKAIN BAT EZIN EDANIK
ETXE BARRUAN SARTUTA. (BERRIZ)

LA, LA, RA, LA...



17. LORIAK UDAN BILINTX, BENITO LERTXUNDI

1. LORIAK UDAN IHINTZA BEZELA MAITE DET DAMA GAZTE BAT,
HARI HAINBESTE NAHI DIOENIK EZ DA MUNDUAN BESTE BAT;

INOIZ EDO BEHIN PASATZEN BADET IKUSI GABE ASTE BAT,
BIHOTZ GUZTIRA BANATUTZEN ZAIT HALAKO GAUZA TRISTE BAT. (BERRIZ)

2. NESKATXA GAZTE PAREGABEA, APIRILEKO ARROSA,
IZARRA BEZIN DIZDIZARIA, TXORIA BEZIN AIROSA;

ORAINTXE BAINO GUSTU GEHIAGO NIK EZIN NEZAKEEN GOZA;
ZORIONEAN IKUSTEN ZAITUT, NERE BIHOTZAK HAU POZA! (BERRIZ)

4. EZ AL DIDAZU ANTZIK EMATEN NIK ZAITUDALA NAHIAGO,
AI, MARINELAK GAU ILUNEAN IZARRA BAINO GEHIAGO?

NERE ONDOAN ZAUZKADALAKO POZEZ ZORATURIK NAGO;
ZU IKUSTEAK ALEGRATU NAU, TRISTE NENGOEN LEHENAGO. (BERRIZ)

3. NERE BETIKO PENTSAMENDUA, NERE KONTSOLAGARRIA,
ZU GABETANIK EZIN BIZI NAIZ, ESATEN DIZUT EGIA.

ZU BAZINAKE ARBOLA ETA NI BALDIN BANINTZ TXORIA,
NIK ZU ZINAKEEN ARBOLA HARTANTXE EGINGO NUKE KABIA. (BERRIZ)



18. MENDIAN GORA IMANOL, XABIER AMURIZA

1.- MENDIAN GORA HARITZA,
AHUNTZAK HAITZEAN DABILTZA,
ITSASOAREN ARIMAK DAKAR UR GAINEAN BITSA.

KANTATU NAHI DUT BIZITZA
USTELTZEN EZ BAZAIT HITZA,
MUNDUA DANTZAN JARRIKO NUKE JAINKOA BANINTZA. (BERRIZ)

2.- EUSKAL HERRIKO TRISTURA,
SOINEKO BELTZEN JOSKURA
TXORI NEGARTIZ BETE DA ETA UMOREZ HUSTU DA.

EMAIDAZUE FRESKURA
URA ESKUTIK ESKURA
IZARREN SALDA URDINA EDANDA BIZI NAIZ GUSTURA. (BERRIZ)

3.- EUSKAL HERRIKO POETA
KANPOSANTUKO TRONPETA
HIL KANPAIARI TIRAKA ETA HUTSARI KOLPEKA.

ARGITU EZAK KOPETA
PENAK HEURETZAT GORDETA
GOIZERO SORTUZ BIZITZA ERE HORTXE ZEGOK ETA. (BERRIZ)

4.- MUNDUA EZ DA BETI JAI,
INOIZ TRISTEA ERE BAI,
BAINA BADIRA MILA MOTIBO KANTATZEKO ALAI.

BESTELA DATOZEN PENAI
EZ DIET SURIK BOTA NAHI,
NI HILTZEN NAIZEN GAUEAN BEHINTZAT EGIZUE LO LASAI. (BERRIZ)



19. KONTRAPAS, XABIER LETE

1. GARAZIKO HERRIA BENEDIKA DADILA (BERRIZ)
EUSKARARI EMAN DIO BEHAR ZUEN TORNUIA (BERRIZ)

EUSKARA EUSKARA JALGI HADI **PLAZARA.**
EUSKARA EUSKARA JALGI HADI **PLAZARA.**

2. BERTZE JENDEK USTE ZUTEN EZIN ISKRIBA ZAITEIEN (BERRIZ),
ORAIN DUTE POROGATU ENGAINATU ZIRELA. (BERRIZ)

EUSKARA EUSKARA JALGI HADI **DANTZARA**
EUSKARA EUSKARA JALGI HADI **DANTZARA.**

3. BERTZEAK ORO IZAN DIRA BERE GOIEN GRADORA. (BERRIZ)
ORAIN HURA IGANEN DA BERTZE OROREN GAINERA. (BERRIZ)

EUSKARA EUSKARA JALGI HADI **MUNDURA!**
EUSKARA EUSKARA JALGI HADI **MUNDURA!**

4. ORAINDAINO EGON BAHAIZ INPRIMITU GABERIK, (BERRIZ)
HI ENGOITIK EBILIREN MUNDU GUZTIETARIK. (BERRIZ)

EUSKARA EUSKARA JALGI HADI **KANPORA**
EUSKARA EUSKARA JALGI HADI **PLAZARA**
EUSKARA EUSKARA JALGI HADI **DANTZARA**
EUSKARA EUSKARA HABIL MUNDU **GUZTIRA!!**



20. ALDAPEKO, HERRIKOIA

1. ALDAPEKO SAGARRAREN

ADARRAREN PUNTAN,
PUNTAREN PUNTAN,
TXORIA ZEGOEN KANTARI! (BERRIZ)

XIRU LIRULI, XIRU LIRULI,
NORK DANTZATUKO OTE DU SOINUTXO HORI? (BERRIZ)

2. ZUBIBURU ZELAIEKO

OIHANAREN ZOLAN,
ZOLAREN ZOLAN,
LILI BAT BADA BEILARI! (BERRIZ)

XIRU LIRULI, XIRU LIRULI,
NORK BILDUKO OTE DU LILI XARMANT HORI? (BERRIZ)

3. MENDE HUNTAN JASAN DUDAN

BIHOTZEKO PENA,
PENAREN PENA,
NOLA BEHAR DUT EKARRI? (BERRIZ)

XIRU LIRULI, XIRU LIRULI,
ZUK MAITEA HARTZAZU ENE PENA HORI! (BERRIZ)



21. RIAU- RIAU, MIGUEL ASTRAIN

KANTA DANTZATU JOSTA TA OSPA
ZAULI ARIN KARRIKA DANTZAN.
ZATOZ GURE PLAZA ZABALERA
GOZA GURE SANFERMINETAN

IRUÑERRIKO GARIAK HORAILTZEN DIREN ARTEAN
BADAGO ZER OSPATUA GURE HIRIBURU MAITEAN
HANKETAN ALEGRANTZIA ZIRRARA BIHOTZEAN
KARRIKAN MILA KOLORE SOINU KANTU BETEAN. **RIAU RIAU!**

ONGI ETORRI IRUÑERA HERRI FESTEN BILGUNERA
HERRIA DA EUSKARRIA ERAGILE ARDATZ NAGUSIA. **RIAU RIAU!**

GOIZNABARREKO DOINUTAN GAU TXORIAK DANTZARI
ZEZEN BELTZ ADAR ZORROTZAK ESTAFETAN AITZINDARI
JAN EDAN GOXO GOXOAK HAMAICA SOINULARI
KILIKI TA ERRALDOIAK TXIKIEN GOZAGARRI. **RIAU RIAU!**

ZEZEN PLAZAKO EGUZKI ALDE BERO BEROA
PEÑA KOADRILEN NESKA MUTILEN GIRO GIROA
OSPA DITZAGUN DENOK GOGOTIK
SANFERMINAK HASI DA FESTAROA. **RIAU RIAU!**

GURE HERRIARI BEREZ DARION IZANA DENA
ZAHAR TA BERRI ZURI GORRI ETA AUZOLANA
OSPA DITZAGUN DENOK GOGOTIK SANFERMINAK
HASI DA FESTAROA. **RIAU RIAU!**



22. LORETXOA, BENITO LERTXUNDI

1. MENDIAN LARRARTEAN
AURKITZEN DA LORETXO BAT,
AURREAN UMETXO BAT
LORETXOARI BEGIRA.

LOREAK ESAN NAHI DIO
UMETXO ASKA NAZAZU,
JAIO NAIZ LIBRE IZATEKO
TA EZ LOTURIK EGOTEKO.

2. UMETXOAK IKUSIRIK
LOREA EZIN BIZIRIK,
ARANTZAK KENDU NAHI DIZKIO
BIZI BERRI BAT EMAN.

ORDUAN IZANGO BAITU
INDARRA ETA KEMENA,
ORDUAN EMANGO BAITU
UGARI BERE FRUITUA.

23. ITURINGO AROTZA, MIKEL LABOA

1.ITURINGO AROTZA, ERRAMUN JOAKIN,
HASERRE OMEN ZAUDE ZEREN DEGUN
JAKIN,
SANTUEK EZ LITEKE FIATU ZUREKIN,
SAN KRISTOBAL URTUTA JOALIAK EGIN.

2.AROTZAK ERRAN DIO BERE ANDREARI:
- URTU BEHAR DINAGU, EKARRAN SANTU
HORI!
- GIZONA HAGO IXILIK, BEKATU DA HORI!
- ETZIONAGU ERRANEN SEKULA INORI.

(MUSIKA)

3.ITURINGO GARAILE RAMUNTXXO JOAKIN
BARKATU BEHAR DIGUZU ZEREN DUDAN
JAKIN.
KONFESA ZAITEZ ONGI ERRETOAREKIN,
EZ DUTE ZER FIDATU SANTUEK ZUREKIN.

4.KOBREZKO SANTURIKAN INON
BAZARETE,
EGOTEN AHAL ZARETE HEMENDIK
APARTE,
BALDIN ARROTZ HORIEK JAKITEN BADUTE,
JOALEAK EGITEKO URTUKO ZAITUZTE.



24. PELLO JOXEPE, HERRIKOIA

1.PELLO JOXEPE TABERNAN DALA
HAURRA JAIO DA LARRAULEN (BERRIZ).
ETXERA JOAN DA ESAN OMEN DU
-EZ DA NERIA IZANEN,
BERAREN AMAK TOPA DEZALA
HAUR HORREK AITA ZEIN DUEN.

2.HAU PENA ETA PESADUNBRIA!
SENARRAK HAURRA UKATU (BERRIZ).
PELLO JOXEPE BIHOTZ NERIA
HAUR HORREK AITA ZU ZAITU,
HAUR HORRENTZAKO BESTE JABERIK
EZIN NEZAKE TOPATU.

3.ZURE SEMIA BESUAN DAUKAT
SENARRA ALDAMENIAN (BERRIZ).
ORAIN DENBORIK EZTAUKAT ETA
ZUAZKIT ORDU ONIAN,
NERONEK ABISATUKO ZAIZUT
GARAIA DATORRENIAN.

4.FORTUNOSOA NINTZELA BAINA
NI NAIZ FORTUNA GABIA (BERRIZ).
ABADE BATEK ERAMAN DIZKIT
UMEA ETA ANDRIA,
HAURRA BERIA BAZUEN ERE
ANDREA NUEN NERIA.



25. ABERRIAREN MUGAK, TXOMIN ARTOLA

-NIRE ABERRIA LURRA BEZAIN ZAHARRA DA
BAINA EZ DA LURRA BAKARRIK,
HAIZEAK BEZALA INGURATZEN NAU ETA
LOTZEN ASKATZEN NAUELARIK.

-NIRE ABERRIA SUAREN ANTZEKO DA
BETI BERA BERRIA BETI,
EPELTZEN NAU KANPOAN HOTZ DAGOENEAN
TA ERRETZEN ERE BADAHI.

ABERRIAREN MUGAK, EUSKARARENAK,
GURE BAITAN DAUDE GEHIENAK,
EUSKARA ZABALDUAZ, LAU HAIZETARA
ZABALAGO EGITEN GARA. (ALDI BAT)

-NIRE ABERRIA HARRIZKO HERRIA DA,
HITZEZKO DA HITZEKO,
ALTZAIKUZKO TXAKOLIN ARDO ZUREZKO
ETA HONDAR ANONIMO.

-NIRE ABERRIA BURDIN BIHURRIA DA,
OROIMENEAN ARINDUA,
ITSASLAMINEN BATEN HERDOILEZKO KANTU
ETORKIZUNEZ FOSILDUA.

ABERRIAREN MUGAK... (2 ALDIZ)



**26. GREZIAKO ITSASONTZIA,
PANTXOA ETA PEIO**

ITSASO GAINDIK IKUSTEN BADUZU
GURE GOGOA DARAMAN ONTZIA
EZ ZAZU PENTSA GALDUTA DOANIK
ARGITZEN BAITU GOIZEKO EGUZKIA.

HAINBESTE AMETS NEGAR TA DESIO
EZ DU EKAITZAK ONDORA BOTAKO
SALBATUKO DA GOIZEKO ONTZIA
KAIAREN BILA HEGAKA JOATEKO

ARRAUN BERRIEK ERAMANGO DUTE
BIDE ZAHARRETIK ASKATASUNERA
OHIAL ZURIEK HAIZEA DIRUDI
GURE ARNASA HILTZEN DEN BATEAN.

EZ DU EKAITZAK ONDORA BOTAKO
SALBATUKO DA GOIZEKO ONTZIA.

27. BOGA-BOGA, JESUS GURIDI

BOGA, BOGA, MARIÑELA
MARIÑELA ,
JOAN BEHAR DEGU URRUTIRA
URRUTIRA ,
BAI INDIETARA,
BAI INDIETARA. (2 ALDIZ)

EZ DET, EZ DET, EZ DET... NIK IKUSIKO
ZURE KAI EDERRA, KAI EDERRA,
AGUR, AGUR, AGUR... ONDARROAKO
ITSAS-ITSASO BAZTERRA
ITSAS-ITSASO BAZTERRA. (2 ALDIZ)

MARIÑELA, MARIÑELA
¡BOGA!

¡MARIÑELA!



28. "SARRIGUREN ABESTIA"

DOINUA: PELLO JOXEPE

HITZAK: LONTXO ABURUZA

1. SARRIGURENGO IKASLERIA,
ATERA GARA KANTURA.
GURE HERRIAN ZABALDU NAHIRIK,
GURE ARBASOEN OHITURA.
EUSKARAZ OZEN ABESTUZ GERO,
SENTITZEN GARA GUSTURA,
ASKE TA POZIK BIZITZEA DA
GURE HELBURU TA MUGA.

2. GURE PLAZERRA NAHIKO
GENDUKE,
ZUREA ERE_IZATEA.
ETA HARGATIK LUZATZEN DUGU,
BIHOTZETIK GONBITEA.
ZEINEN POLITA ZEINEN EDERRA
EUSKARAZ ONGI_ABESTEIA,
TA_EGUN BATEAN AUZO OSOA
EUSKALDUNA IKUSTEA.

29. EUSKALDUNAK GARA, PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOX

1. AKASO GU EZ GARA HANDIENAK,
EZ GARA AGERTZEN MAPAMUNDIAN;
AKASO GU EZ GARA POLITENAK,
EZ GARA IBILTZEN PASARELETAN..

BAINA GURE HERRI EDERREAN
BARRA-BARRA DITUGU
FESTA TA UMOREA.
NONGOTARRAK GAREN GALDETZEAN,
HARROTASUNEZ ESAN:
EUSKALDUNAK GARA!

2. AKASO EZ GARA KARIBEKOAK,
EZ DUGU ONGI DANTZATZEN
TXA-TXA-TXA;
AKASO EZ GARA WONDERFULENAK,
EZ DUGU ATSEGIN HOT-DOG
SALTXITXA.

BAINA GURE ...



30. EUSKERA OI EUSKERA, HERRIKOIA

EUSKERA OI EUSKERA
ZUGAN DA GORDERIK,
MENDEZ MENDE EGOKI,
EUSKALDUN GOGOA. (BERRIZ)

1. EUSKALDUN JAIO NINTZAN,
EUSKALDUN HAZI,
EUSKERA HUTSIK AMAK
ZIDAN ERAKUTSI.
EUSKERA MAITE MAITE
ZABILTZ NEKIN BETI,
EUSKERA HIL EZKERO
EZ NUKE NAHI BIZI. (2 ALDIZ)

EUSKERA, OI EUSKERA...

2. EUSKERA EGUNEZ ETA,
EUSKERA GABIAN,
ZAHAR TA GAZTEOK BETI
ARITU GAITEAN,
GUZTIOK MINTZA ZAGUN
POZKIROZ EUSKERA,
BIHOTZETIK ESANAZ
EUSKALDUNAK GERA (2 ALDIZ)

31. EPERRAK, HERRIKOIA

EPERRAK BADITITZÜ
BERE BI HEGALAK
BAI ETA BÜRÜN GAIÑIN
KOKARDA EIJER BAT

_ZÜK ERE BALINBAZÜNÜ
GAZTETASÜN EIJER BAT
NESKATILEN GOGATZEKO
BILO HOLLI POLLIT BAT (2 ALDIZ)

2. AMOROSAK BEHAR LÜKE
IZAN LOTSAGABE
GAIAZ EBILTIA
EZ IZAN HERABE

_EGÜNAZ EBILTIA
DESOHORE LEIKE
TXORIAK ERE ORO
HAIER SOZ DIRADE (2 ALDIZ)

3. EBILI IZAN NÜZÜ
GAIAZ ETA BETI
HEIAN ATZEMANEN NIANEZ
LILI EIJER HORI

_AZKENIAN ATZAMAN DÜT
OI BENA TRISTEKI
LUMARIK EIJERRENA
BEITZAIO ERORI (2 ALDIZ)



32. NAFARROAKO KATEAK, FERMIN BALENTZIA

KANPOTIK ETA BARNETIK NAFARRAK DITU KATEAK
HARMARRIKOAK GEUREAK ETA EZARRIAK BESTEAK.

ETA EZARRIAK BESTEAK HARMARRIKOAK GEUREAK
NAFARRAK DITU KATEAK KANPOTIK ETA BARNETIK.

1. SANTXO AZKARRA, SANTXO AZKARRA BIZI BALITZ SANTXO AZKARRA,
DENOK ASKE IZATEKO
BATUKO ZUEN NAFARROA.
ORAIN EZ DIRA MOROAK MUGEEEN AURKA DATOZENAK
ORAIN BERTAKOAK DIRA
TXISTERAZ JANZTEN DIRENAK.

2. MILA BOSTEHUN TA HAMABIAN ALBAKO DUKEN INDARRAK
SARTU ZIREN IRUÑEAN
SAKABANATUZ NAFARRAK.
GAZTELAKO ERREGEEK AGINDU ORDUZ GEROZTIK,
MONARKEK FARRE EGINEZ
TA GUK NEGARRA BARNETIK.

3. HERRIEK HISTORIA EGIN KONTRABANDISTEK IDATZI
GEZURRAK JARTZEN DITUZTE
ETA ARDI LARRUZ JANTZI.
OBANOSKO INFANZOIEK LELOA UTZI ZIGUTEN:
"HERRI ASKEAN GIZAKI ASKE
NAFARROAK EZ DU AHAZTEN".



33. FURRA FURRA, OSKORRI

FURRA FURRA FANDANGUA,
HORTXE DUZU FANDANGUA GEURE GUSTUKUA. (BIS)

GAUR GOIZEAN JAIKI NAIZ SUERTE ONEAN,
TANKE BAT TOPATU DUT NEURE KAFESNEAN;
EZ DAKIT ZER DAUKAGUN BAKE ALA GERRA
BAINA NIK BADAIEZPADA EGIN DUT PUZKERRA.

FURRA FURRA ...

NEURE ARMA BAKARRA DUT AKORDEOIA,
HAUSPOARI ERAGINEZ DIRUDI LEHOIA;
ESKUA JATEN BADIT ON EGIN DIEZAION,
CERVANTESI HOLAKORIK GERTATU ZITZAION.

FURRA FURRA ...

ETA ORAIN BANOA BERRIRO OHERA,
BILA EZ BADATOZKIT LOLO EGITERA;
BIHAR IKUSIKO DA ZER DAGOEN BERRI,
JAKINTSUENAK ERE EZIN DU IGERRI.



34. ZIRKORRIKA

HIZKUNTZAREN MALABARISTAK, AKROBATAK, TRAPEZISTAK,
HERRI HONEN ILUSIONISTAK...

BIDERA ATERA GARA, MUNDURA ATERA GARA, HERRIZ HERRI IGAROKO GARA!

BAT, IZAN BAT, EGIN BAT, BAT ZUK ETA BAT NIK, BAT,
DENOK BAT, BAT ETA BATZUK GARA, HONA HARA, EUSKARA BAT, MUNDU BAT.

BI URTEKO EKILIBRISTAK, SU-IRENSLE OPTIMISTAK,
JAIOTZETIK ILUSIONISTAK...

BIDERA ATERA GARA, KORRIKA ATERA GARA, HERRIZ HERRI IGAROKO GARA!

ATSO-AGURE KONTORTSIONISTAK, PAILAZOAK, ESKAPISTAK,
EURIPEAN ILUSIONISTAK...

BIDERA ATERA GARA, MUNDURA ATERA GARA, HERRIZ HERRI IGAROKO GARA!

BAT, IZAN BAT, EGIN BAT, BAT ZUK ETA BAT NIK, BAT,
DENOK BAT, BAT ETA BATZUK GARA, HONA HARA, EUSKARA BAT, MUNDU BAT.

AHOTS KORDAN FUNANBULISTAK, FAKIRRAK TA ALKIMISTAK,
OFIZIOZ ILUSIONISTAK...

BIDERA ATERA GARA, KORRIKA ATERA GARA, HERRIZ HERRI IGAROKO GARA!

BIZIRAUTEN ESPEZIALISTAK, BI BURUKO AKTIBISTAK,
BIHOTZAREN ILUSIONISTAK...

BIDERA ATERA GARA, HERRIZ HERRI IBILIKO GARA!

BAT, IZAN BAT, EGIN BAT..

DENOK BAT, BAT ETA BATZUK GARA, HONA HARA, EUSKARA BAT, MUNDU BAT.



35. EUSKARAREN TXANTXANGORRIA

1. SORTALDEKO ARGI BERRIARI
ARI ZAIO ASPALDI
ARRATSEKO AZKEN IZPIARI
EGUN (E)TA GIZALDI.

BULAR GORRI, HEGAKA DA ARIN
LUR HAUETAN DA EMARI
ERREKA ETA IBAI ZABALAREN,
ITSASOAREN EGARRI.

LAU HAIZETARA HEGAN
BERA DABIL AIREAN
AHOTAN, BELARRITAN
SU EPELEAN
KALEAREN BIZIA
HERRI HONEN IRRIA
EUSKARAREN TXANTXANGORRIA.

2. HAIZEAREN MAGAL LEUNEAN
HEDATU DA OIHUA
BIHOTZAREN TAUPADETAN HITZAK
SORTU DU DOINUA.
OLATUEK BEREN SOLASEAN
AUKERATUTAKO HARRIA
DENBORAN ZEHAR DUTE JOLASEAN
ETEN EZ DADIN HARIA.

LAU HAIZETARA HEGAN...



36. BEHIN BATEAN LOIOLAN, BILINTX EGAN

1.- BEHIN BATIAN LOIOLAN ERROMERIA ZAN,
HANTXE IKUSI NUEN NESKATXA BAT PLAZAN;
TXORIA BAINO ERE ARINAGO DANTZAN
HURAXE BAI POLITA HAN POLITIK BAZAN.

2.- ESAN NION DESIO SENTI NUEN GISAN,
HAREKIN HIZKETA BAT NAHI NUELA IZAN;
ERANTZUN ZIDAN EZIN ATSEGIN HAR NEZAN,
ADITUKO ZIDALA ZER NAHI NION ESAN.

3.- AURKITU GINANIAN INOR GABE JIRAN,
KOLORIAK GORRITU ARAZI ZIZKIDAN;
KONTATUKO DIZUET GUZTIA SEGIDAN,
ZER ESAN NION ETA NOLA ERANTZUN ZIDAN.

4.- DAMA POLITA ZERA, POLITA GUZTIZ, BAI!
BAINA HALARE ZAUDE ORAINDIK EZKONGAI;
EZKON GAITEZEN BOK, ESAN ZAIDAZU, BAI!
NI ZUREKIN EZKONDU? NI ZUREKIN, JAI, JAI!



37. SARRI SARRI, KORTATU

EZ DAKIT ZER PASATZEN DEN AZKEN ALDI HONTAN
JENDEA HASI DELA DANTZATZEN SARRITAN,
ZERBAIT IKUSTEKO DU BI FALTA DIRELA KOZ
"RECUENTO GENERALEAN".

*SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRI,
SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRI ASKATU,
SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, BI BATU.*

IRRATIKOAK HAN ZIREN EMITITZEN ZUZENEAN
PAELLA JANGO ZUTELA
ETA PITI ETA SARRI BERE MUTURRETAN
SALTZAN ZEUELA KONTURATU GABEAK.

SARRI SARRI...

ZAILA DUGU SORTZEA DOINU GOGOZAGORIK
SARRI DIO HERRIAK TXANPAINAZ OSPATURIK
IRUÑEKO ENTZIERROA DESENTZIERROA HEMEN
ZAPI GORRIAK ZERUA DU ESTALTZEN.

EZ DAKIT ZER PASATZEN DEN..



38. LAU TEILATU, ITOITZ

HEMEN GAUDE TA POZTUTZEN NAIZ
TA ZIUR ZURE AITA ERE BAI;
TA ZER ONDO... ZELAN DIJUA
ZURE BUFANDA TXURIA.

LAU TEILATU GAINIAN
ILARGIA ERDIAN
ETA ZU GORUNTZ BEGIRA,
ZURE KEIA ESKUETAN
PUTZARA BATEKIN... PUTZ!
NEREGANA ETORRIKO DA
TA BERRIZ IZANGO GARA
ZORIONTSU
EDOZEIN HERRIKO JAIXETAN.

GOXO GOXO KANTA EGIN NAZU
BENITOREN MARIA SOLT.
NEGARRIK EZ, TXURI ZAUDE TA MALKOAK
ZURE KOLOREA KENTZEN DUTE.

LAU TEILATU GAINIAN...

FELIX, FELIX BIHAR BERRIZ EGONGO GARA
TXANPAIN APUR BATEKIN;
DIRU GABE BAINA IZARRAK GUREKIN DAUDE,
PIANO BATEN SOINUAZ.

LAU TEILATU GAINIAN...



39. IRULEGIKO ESKU

AMONAREN LO KANTEK
KONTATZEN ZITUZTEN
"SORIONEKU" HERRI BATEN ISTORIOAK
NOLA ZAINTZEN ZUTEN
NOLA MAITE ZUTEN
HAIEN AHOTAN BIZI ZEN HIZKUNTZA.

IRULEGIKO ESKU
ATSEDEN HARTU EZAZU
ESKU ONETAN DAGO ZURE ONDAREA
IRULEGIKO ESKU
ATSEDEN HARTU EZAZU
GUK ZAINDUKO DUGU ZURE ALTXORRA

BIZIRIK EGON BEDI
BIZIRIK EGON BEDI
BIZIRIK EGON BEDI
BESTE EHUN MILA BELAUNALDI (2 ALDIZ)

DEBEKUETAN IRAULTZA ZARA
GARAIPENETAN ERESERKI
ZUK EGITEN DUZU GARENA
ZUK EGITEN GAITUZU HERRI.

AHOZ AHO HELDU ZARA
TA ORAIN DENOK KATEBEGI
SUA BIZIRIK MANTENDUKO DUGU HITZEZ HITZ.

IRULEGIKO ESKU...

BIZIRIK EGON BEDI...



40. SARRI, SARRI, BERDETXO!

DOINUA: KORTATU

HITZAK: JOAKIN LIZARRAGAKO EUSKARA BATZORDEA

EZ DAKIT ZER PASATZEN DEN AZKEN ALDI HONTAN,
EUSKARA_HASI DELA ENTZUTEN KALEAN,
SARRIGURENGO ESKOLAN, PATIOAN ZEIN GELAN
BERDETXO DUGU, LAGUN ARTEAN.

*SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRIN,
SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRIN,
SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRIN, **EUSKARAZI!***

BIZIPEN ASKO DIRA, ESKOLA HONETAN,
OHARTU GABE, LAGUN EGIN GARA,
IKASIZ TA JOLASTUZ, BETI GURE_ARTEAN
ZAINDUZ BIDEAN, GURE EUSKARA.

*SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRIN,
SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRIN,
SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRIN, **EUSKARAZI!***

(dantza)

EUSKARA MAITE DUGU, GOIZETIK GAUERA,
ALTXOR DELAKO, GURE_INGURUAN,
ARDURA HARTUKO DUGU, GUZTIOK BATERA
ZAINDU DEZAGUN, GURE PLAZETAN.

*SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRIN,
SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRIN,
SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRI, SARRIN, **EUSKARAZI!***

*SARRI, SARRI, SARRI, SARRIN.. BERDETXO DA!
SARRI, SARRI, SARRI, SARRIN.. GURE MASKOTA!
SARRI, SARRI, SARRI, SARRI SARRI SARRIN... **EUSKARAZI!***